

HERNANIKO UDALEKU ETA AISIALDI JARDUERETARAKO BEGIRALEEN LAN-POLTSA

1.- Deialdiaren xedea:

Udalak antolatzen dituen udaleku eta aisialdi jardueretarako begiraleak kontratatzeko lan-poltsa osatzea lehiaketa-oposaketa ireki bidez.

Begirale lan-poltsa Hernaniko Udalak dituen Udaleku Irekiak eta Oporrak Bakean programetako lanpostuak betetzeko erabiliko da.

Udaleku Irekien helburua da Hernaniko 3 eta 10 urte bitarteko haurrei aukera ematea jolaserako, gozamenerako, bizikidetasuna garatzeko, autonomia pertsonala areagotzeko, parte-hartzean trebatzeko eta hori guztia euskaraz, berdintasunean eta aniztasunean egitea.

Oporrak Bakean programaren helburua da Saharako errefuxiatu kanpamendutik Hernanira etorritako haurrek bi hilabetez lagunartean gozatzea, bizikidetzeta eta bertako haurrekiko harremanak sustatuz.

2.- Izangaien baldintzak:

Onartua izateko eta lehiaketan parte hartu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Lan-kontratua sinatu behar dutenerako 18 urteak beteta izatea.
- b) DBH, Lanbide Heziketako erdi mailako titulua edo baliokidea izatea.
- c) Gaixotasunik ez edukitzea, ezta desgaitasun fisiko nahiz psikikorik, postuan bete behar diren funtzioak betetzea galaraziko lukeenik. Beharrezkoa izanez gero mediku-txostena eskatuko da.
- d) Europako Batasuneko edozein estatutako edota hitzartutako herrialde bateko nazionalitatea edukitzea, abenduaren 29ko 55/1999 Legearen 37. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- e) Euskarako B2 mailako tituluaren jabe izatea.
- f) Natura sexualeko delituengatiko aurrekari penalik ez izatea.
- g) Diziplinazko espedientea dela medio, Estatuko, Autonomia Erkidegoko nahiz udal erakunde publikoen menpeko lanetik banandua ez izana, ezta ere herri eginkizunetan aritzeko.

Eskatzen diren baldintza hauek **izena emateko epea amaitzen denerako beteta eduki behar dira, a) baldintza izan ezik.**

3. Begiralearen egitekoak

Hauexek izango dira udalekuan zehar begiraleak egin beharreko lanak:

- Programazioaren diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan parte hartu.

- Programatutako guztia gauzatzeko beharrezkoa den lanketa egiten.
- Haurrei harrera egin eta arreta eskaintzeaz arduratzea. Gainera, besteak beste, espazioak ireki eta itxi beharko dituzte, txukuntasuna mantendu beharko dute eta funtzionamendu-arauak betearazi beharko dituzte.
- Haurrak dinamizatu eta lotura afektibo eta konfiantzazkoak bideratuko dituzte,
- Haur guztien parte-hartzea sustatu.
- Harreman ludikoa garatu, baliabide eta jarduera desberdinetan loturak sortuz.
- Haurrei eguneroko eginbeharretan autonomia garatzen lagundu.
- Haurren familiengana hurbildu eta gertuko harremana izan.

4.- Eskaintzaren ezaugarriak:

Batetik, Udalak antolatzen dituen Udaleku irekietarako begiraleak kontratatzeke erabiliko da lan-poltsa. Ezaugarriak:

- Iraupena: 2019ko udalekuetan, uztailearen 1etik 24ra (biak barne).
- Lanaldia: egunean 4 ordu, asteleheneetik ostiralera
- Ordainsari gordina: 760 euro inguru + dagozkion aparteko paga eta oporraren zati proportzionala.

Bestetik, *Oporrak Bakean* programarako begiraleak kontratatzeke ere erabiliko da lan-poltsa. Ezaugarriak:

- Iraupena: 2 hilabete, uztaile eta abuztua.
- Lanaldia: egunean 4 ordu, asteleheneetik ostiralera.
- Ordainsari gordina: hileko 980 euro inguru + dagozkion aparteko paga eta oporraren zati proportzionala.

5.- Eskabideak aurkeztea

Epea: Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 20 egun naturaleko epea egongo da izena emateko.

Eskabideak, behar bezala beteta, toki hauetako batean aurkeztu behar dira:

- Hernaniko Udaleko HHZ bulegoan (Gudarien plaza, 1. 20120 Hernani) Orduetgia: 08:00-19:00 (asteleheneetik ostiralera) / 10:00: 13:00 (hilabeteko 1. eta 3. larunbatetan) edo Posta bulegoetan.

- Posta bulegoan. Posta bulego batean aurkeztekotan, gutun-azal ireki batean eraman behar da: Postetxeko enplegatuek data eta zigilua jartzeko, aurkezteko epearen barruan. Horrela bakarrik ulertuko da eskabidea posta bulegoan utzi zen egunean izan duela sarrera Hernaniko Udaleko Erregistroan.

Oharra:

- Ez da posible eskaera korreo elektronikoz aurkeztea.

6.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- Eskaera orria beteta. (www.hernani.eus webgunean zein Hernaniko Udaleko HHZ bulegoan eskuragarri egongo da).

- Nortasun Agiriaren fotokopia.
- Eskatzen diren tituluen fotokopiak. (ikasketak eta euskara)
- Eskaeran aipatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agirien fotokopiak.
- Natura sexualeko delituen ziurtagiria, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako datarekin.
<https://sede.mjusticia.gob.es/cs/Satellite/Sede/eu/tramites/certificado-registro-central>.

Ohar garrantzitsuak:

1.Merezimenduak baloratuak izateko, ezinbestekoa izango da hautagaiek eskaera orrian, lehiaketan kontuan hartzea nahi dituzten merezimenduak idatziz jasotzea. Eskaera orrian jasota ez dauden merezimenduak ez dira baloratuko.

2.Lan-esperientzia ziurtatzeko, kontratu laboralaren fotokopia aurkeztuko da edo erakundeak egindako ziurtagiria, eta bertan lanpostua eta iraupena era egokian jaso beharko da, bestela ez da kontuan izango.

3.Agirien fotokopiak aurkeztu behar dira, ez originalak.

7- Epaimahai kalifikatzailea:

Epaimahai kalifikatzailea honela osatuta egongo da:

-Presidente. Hernaniko Udaleko Hezkuntza eta Euskara teknikaria. Ordezkoa: Hernaniko Udaleko Gazteria teknikaria.

-Bi bokal. Hernaniko Udaleko Kulturartekotasun Saileko teknikaria eta Udal Euskaltegiko irakasle-normalizatzailea .Ordezkoak: Hernaniko Udaleko Kultura teknikaria eta Berdintasun teknikaria.

-Idazkaria. : Hernaniko Udaleko Hezkuntza eta Euskara Saileko administraria. Ordezkoa: Hernaniko Udaleko Gazteria Saileko administraria

Epaimahaia ezin daiteke eratuz jardun, kideen, titular nahiz ordezko, erdiak baino gehiago bertaratzen ez baldin badira. Nolanahi ere, presidenteak eta idazkariak bertan egon beharko dute. Halaber, eta behar izanez gero, Udalak aholkularitza teknikoa eskatu ahal izango du.

8.- Hautaketa

Lehiaketa-oposaketa bidez arautuko da hautaketa:

→ **Lehiaketa Fasea**

Honako meritua hauek baloratuko dira:

Aisialdiko titulazioa

- Eusko Jaurlaritzak homologatutako Haur eta Gazteen Aisialdiko Begirale titulua edo SSCB0209_2 Haur eta Gazteen Denbora Libreko

- Ekintzen Dinamizazio titulua. **5 puntu**
- Beste autonomia elkarteek homologatutako Aisialdiko Begirale agiria **3 puntu**
 - Eusko Jaurlaritzak homologatutako Haur eta Gazteen Aisialdiko Zuzendari titulua edo SSCB0211_3 Haur eta Gazteen Denbora Libreko Ekintzen Zuzendaritza eta koordinazio titulua **2 puntu**

Bestelako titulazioak

- Unibertsitate mailako nahiz Goi mailako Heziketa Zikloa amaituta izatea Honako titulazio hauek baloratuko dira eta bakarra puntuatuko da: Irakasletza, IVEF-SHEE, Gizarte Hezkuntza, Pedagogia, Psikologia, Gizarte eta Kultur animazioa, Heziketa Fisikoko Goi Mailako Zikloa, Gizarte Integrazioa eta Haur Hezkuntzako Goi Mailako Zikloa. **4 puntu**
- EGAREN pareko edo goragoko titulazioa izatea: **2 puntu**

Lan Esperientzia:

- Udaleku itxietan zuzendari edo begirale bezala aritu izana (7-11 egun bitartean: 0,5 puntu; 12-15 egun bitartean: 0,75 puntu)
 - * Udaleku irekietan zuzendari edo begirale bezala aritu izana 0,5 puntu egonaldiko (gutxieneko egonaldia: 15 egun)
- 4 puntu (gehienez)**

Ikastaroak:

- * Aisialdiko begiraleen ikastaroko atal teorikoaren formazio orduak (titulua baloratu ez den kasuetan). **1 puntu**
- Aisialdiko jarduera hauekin lotura duten ikastaroak (jolasa, parte hartzea, hezkidetzak, generoa eta aisialdi hezitzailea) eta sorosletza ikastaroak (10 orduetik beherakoak ez dira kontuan hartuko) 10-25 ordu bitartean: 0,5 puntu; 26-50 ordu bitartean: 0,80 puntu; >50 ordu: **1 puntu**

Dagokion erakundeak sinatutako ziurtagiriak aurkeztu behar dira.

4 puntu (gehienez)

→ Oposaketa Fasea

Oposaketa faseak bi zati dituen proba bakarra izango du, derrigorrezkoa eta baztertzaila:

1. Idatzizko ariketa. Idatziz erantzun beharko zaio oinarri hauen Eranskinean jasotako gaien inguruko galdera bati.
2. Ariketa praktikoa. Talde dinamika burutzea. Ariketa honekin hautagaia lanpostuaren profilari egokitzen ote zaion neurtuko da.

Gehienez lor daitekeen puntuazioa: **20 puntu**

Azken kalifikazioa lehiaketaldian eta oposizioaldian lortutako emaitzen batuketa izango da. Berdinketa egonez gero, ordena irizpide hauen arabera jokatuko da:

- 1.- Oposizioaldian puntuaziorik handiena.
- 2.- Zozketaz

9.- Onartuen zerrenda eta izendapen proposamena:

Begiraleen zerrenda, puntuazioaren arabera sailkatuta, alkateari igorriko dio Epaimahaiak, begiraleen lan-poltsari onarpena emateko.

Alkateak hasierako onarpena emango dio zerrendari eta udaletxeko iragarki-taulan eta web orrian jarriko dira, eta ikusgai izango dira **10 eguneko epean**, nahi duenak alegazioak egiteko. Epe horretan alegaziorik izan ezean, erabakia behin-betiko onartutzat emango da.

10.- Gorabeherak:

Epaimahai ahalmen dago sortzen diren zalantzak argitzeko eta lehiaketa hau ondo antolatu eta ezin hobeki eraman dadin behar diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusten ez den orori dagokionez.

11.- Inpugnazioak:

Oinarri hauen onespene-erabakiek administrazio bideari amaiera ematen diote eta, beren aurka, dagozkion errekursoak aurkeztu ahal izango dira.

Interesatuak deialdiaren, oinarrien eta horren ondorioz nahiz Epaimahaiaren jardunaren ondorioz sortutako administrazio-agintzen kontra egin dezakete 39/2015 Legea, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, xedatutako moduetan eta kasuetan.

12.- Begiraleen betebeharrak

- Prestaketa eta programazio saioetan parte hartzea. Prestaketan parte hartzen duten hautagaiei, ordainsari gordinaz gain, prestaketa orduak lanordu gisa ordainduko zaizkie.
- Kontratua osorik betetzea. Kontratua amaitu baino lehen eten ahal izateko, hautagaiek ekainaren 26rako jakinarazi beharko diote udalari etete data.

ERANSKINA

Gaiak

1. gaia. Ekainaren 25eko 170/1985 DEKRETUA, neska-mutikoen eta gazteen kanpamenduen, kolonien, kolonia irekien, lan-kanpaketen eta ibilaldietako kanpaketen jaurpidea arautzen duena.
2. gaia. Haurren aisialdirako hezkuntza-jarduerak.
3. gaia. Talde- eta hezkuntza-prozesuak haurren aisialdian
4. gaia. Animazioko teknikak, metodologia, talde dinamikak eta baliabideak aisialdiko jardueretan.
5. gaia. Euskararen erabilera sustatzea hezkuntza ez formalean. Estrategiak eta tresnak.
6. gaia. Aniztasunaren trataera hezkuntza ez formalean. Estrategiak eta tresnak.
7. gaia. Genero parekidetasuna sustatzea hezkuntza ez formalean. Estrategiak eta tresnak.
8. gaia. Haurren parte-hartzea. Estrategiak eta tresnak.
9. gaia. Hernani herriaren ezagutza: datu soziodemografikoak, auzoak, zerbitzuak, elkarteak, ohitura eta usadioak...